

EUSKAKAKEN EGUNA KANTU SAIOA

Lezo, 2017-12-01 (OSTIRALA)

18:00etan (Auditorionan)

1. AITORREN HIZKUNTZA ZAHARRA.

S+2

AITORREN HIZKUNTZA ZAHARRA
NAHI DEGU ZABALDU
MUNDUAREN AURREAN
GIZONKI AZALDU,
BALDIN GURE ZAINETAN
ODOLIK BADEGU
EUSKALDUNAK EUSKARAZ
HITZ EGIN BEHAR DEGU.

ZEIN HIZKUNTZA EDERRA
EUSKERA GURIA
INUN EZ DET AURKITZEN
BESTE BAT HOBIA
USAI GOXONDUN HIZKUNTZA
TXUKUN TA ARGIA,

II: BIRAORIKAN EZ DUAN
HIZKETA GARBIA: II (Bukatzako 2 aldiz)

3- ABERRIAREN MUGAK.

S+2

NIRE ABERRIA LURRA BEZAIN ZAHARRA DA
BAINA EZ DA LURRA BAKARRIK;
HAIZEAK BEZALA INGURATZEN NAU ETA
LOTZEN, ASKATZEN NAUELARIK. (Berrero)

ABERRIAREN MUGAK, EUSKARARENAK
GURE BAITAN DAUDE GEHIENAK
EUSKARA ZABALDUAZ LAU HAIZETARA
ZABALAGO EGITEN GARA.

NIRE ABERRIA SUAREN ANTZEKO DA,
BETI BERA, BERRIA BETI,
EPELTZEN NAU KANPOAN HOTZ
DAGOENEAN,
TA ERRETZEN ERE BADAHI. (Berrero)

ABERRIAREN MUGAK, EUSKARARENAK.....

2. EUSKAL HERRIAN EUSKARAZ

S+2

EUSKAL HERRIAN EUSKARAZ
NAHI DUGU HITZ ETA JOLAS,
LAN ETA BIZI EUSKARAZ ETA
HORTARA GOAZ,
BADA GARAIA NOIZBAIT DEZAGUN
GUDA HORI GAL EDO IRABAZ.

II: ZABAL BIDEAK ETA AIREAK
GURE HIZKUNTZAK HAR DEZAN ARNAS,
BADA GARAIA NOIZBAIT DEZAGUN
GUDA HORI GAL EDO IRABAZ.: II

EUSKAL HERRI EUSKALDUNA
IRABAZTEKO EGUNA,
PAZIENTZIA ERRE AURRETIK
BEHAR DUGUNA;
EZ AL DAKIZU EUSKARA DELA
EUSKALDUN EGITEN GAITUENA?

II: ZER EUSKAL HERRI LITZAKE BERE
HIZKUNTZA ERE GALTZEN DUENA?
EZ AL DAKIZU EUSKARA DELA
EUSKALDUN EGITEN GAITUENA?: II

4. EUSKARAZ BIZI NAHI DUT

(S+3)

GAU ETA EGUN EUSKARAZ BIZI NAHI DUT
ETA GAUZA BERA EGIN DEZAKEZU ZUK
EUSKARAZ BIZI NAHI DUT GOIZEAN GOIZIK
EZ DA AMETS BAT NIRE NAHIA DA BAIZIK

ETXEAN, KALEAN, LANEAN, LAGUN
ARTEAN,
MENDIRA JOATEAN ETA OHEAN SARTZEAN

EGIN GINEN BIZITZAREN JABE
NORTASUNA ETA IZAERA GORDE GABE
KALEETAN BAT EGIN GENUEN
ELGAR MAITE GENUELA ERAKUSTEARREN

II: OOOOO, EUSKARAZ BIZI NAHI
OOOOO, (E)TA EUSKARAZ BIZI
NAIZ.: II (Berrero)

5- GUK EUSKARAZ.

S+2

**GUK EUSKARAZ,
ZUK ZERGATIK EZ?
GUK EUSKARAZ,
ZUK ZERGATIK EZ...**

**EUSKARA PUTZU SAKON
ETA ILUN BAT ZEN,(BERRIZ)
ETA ZUEK, DENOK,
UR GAZI BAT
ATERA ZENUTEN
HANDIK NEKEZ. (BERRIZ)**

(Bukatzeke) GUK EUSKARAZ,....

6. BEHIN BETIKO

S+1

**BEHIN BETIKO, BEHIN BETIKO
SINPLE BEZAIN TINKO,
EZ DUGU ETSIKO!
BEHIN BETIKO, BEHIN BETIKO
SINPLE BEZAIN TINKO,
EUSKARAZ ETA KITTO!**

**ETXEAN ETA KALEAN
BERDIN-BERDIN JOLASEAN,
ESKOLAN, LANEAN,
BORROKAN ETA PAKEAN. (TRISTURAN
ETA POZEAN)
DAKITENEK ERABILIZ,
EZ DAKITENEK IKASIZ,
HERRI BAT OSATURIK
EUSKARAZ NAHI DUGU BIZI.**

**II:HASI ETXETIK ETA KALERA,
HASI KALETIK ETA ETXERA,
MARTXAN JARRI DA LEGE BERRIA:
EUSKARAZ EUSKAL HERRIAN.:II(Berriro).**

7- EUSKARA PLAZARA

**PLAZARA, EUSKARA PLAZARA!
EUSKALDUN IRAKASLE
ETA IKASLEOK, DANTZARA!
PLAZARA, DANTZARA!
GEURE HERRIAREN
GEROA BAIT GARA!**

**BAI ARREBA TA ANAI...
GUK ERE HERRI BAT IZAN NAHI!
GURE LURRAK LAIATUZ ETA IRAULIZ,
UDABERRIKO
EMAITZAREN ZAI!
HERRI JAKINTZA NAHI DUGU,
ETA JAKINTZA HERRIARENTZAT NAHI!
PLAZA...**

**EZ ERDERARIK EZ!
EUSKADIN SORTU GIÑANEZ!
DENOK EUSKARA
BAKAR BAT NAHI DUGU!
BIZI GIRO TA
JAKINTZA BIDEZ,
MUNDU BERRI BAT NAHI DUGU
HERRI BAKOITZAK BERETIK EMANEZ!
PLAZA...**

8.EUSKARAREN TXANTXANGORRIAREN KANTA

**SORTALDEKO ARGI BERRIARI ARI ZAIO ASPALDI
ARRATSEKO AZKEN IZPIARI EGUN ETA GIZALDI.
BULAR GORRI, HEGAKADA ARIN LUR HAUETAN
DA EMARI
ERREKA ETA IBAI ZABALAREN, ITSASOAREN
EGARRI.**

**LAU HAIZETARA HEGAN BERA DABIL AIREAN
AHOTAN, BELARRITAN SU EPELEAN
KALEAREN BIZIA HERRI HONEN IRRIA
EUSKARAREN TXANTXANGORRIA.**

**HAIZEAREN MAGAL LEUNEAN HEDATU DA
OIHUA
BIHOTZAREN TAUPADETAN, HITZAK SORTU DU
DOINUA.
OLATUEK BEREN SOLASEAN AUKERATUTAKO
HARRIA
DENBORAN ZEHAR DUTE JOLASEAN ETEN EZ
DADIN HARRIA.
LAU HAIZETARA HEGAN BERA DABIL AIREAN
AHOTAN, BELARRITAN SU EPELEAN
KALEAREN BIZIA HERRI HONEN IRRIA
EUSKARAREN TXANTXANGORRIA.
(Instrumentua + 2 aldiz Lau haizeta)**